

**BAIEZKOAN**  
**BAI,**  
**BESTELA**  
**EZ.**

**BILBON,**  
**ARGI ESATEN**  
**DUGU.**

**ASTE NAGUSIA**  
**ERASO**  
**SEXISTARIK**  
**GABEKO**  
**GIDA**



**Bilbao**



# ZERTARAKO GIDA HAU?

Sexu-erasoa, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen gisa, eraso zuzena da, pairatzen duten emakumeen duintasun eta osotasun fisiko zein moralaren kontrakoa; giza eskubideen urraketa larri eta toleraezina. Lehentasun osoa duen arazo sozial bilakatzen da, errotik mozteko, gizarte osoaren eta, bereziki, botere publikoen inplikazioa ezinbesteko duena.

Bilboko Udalak gida hau sortu du, emakume zein gizonei, mutil zein eskei, **sexu-erasoen aurrean nola jardun irakasteko**, betiere, ahalik eta modu xume eta egokienean egoerari aurre egiteko gako nagusiak helarazte aldera.

# ZER DIRA SEXU-ERASOAK?

Sexu-erasoak sexu izaera duten jarrerak dira, emakumeen borondatearen kontra egiten direnak: baimenik gabeko hurbilketak, larderia, ukitzeak, exhibizionismoa, bortxaketa...

# inoiz...

- Beldur izan eta urrats azkarragoz ibili zara atzetik urratsak entzutean?
- Alde egin duzu taberna, metro, autobusetik norbait modu astunean hitz egiten ari zaizulako, nahiz eta bakean uzteko eskatu?
- Presioa egin dizute edo behartu zaituzte sexu-harremanak edukitzeko, edozein mota edo intentsitatekoak izanik ere?
- Haserretu zara emakumeak gogaitzen, molestatzen edo erasotzen dituzten jarrerak ikusita?
- Pentsatu duzu erasorik gabeko jai aske eta parekideen alde lan egitea?

B

# **GI DA HAU ZURETZAT DA!**

Ez justifikatu indarkeria  
sexista, ez ahalbidetu.

Alda ditzagun mutil  
eta nesken, emakume  
eta gizonen gainean  
ditugun jarrera, jokabide  
eta sinesmenak.

# NESKA!

- Segurtasunez ibili.  
Bete zeure bizi-espazioa.  
Ez mugatu zeure bizitza,  
**jarri mugak gustuko ez duzun horri.**

B

- Izan konfiantza zeure irizpide propioan. Erasotua sentitzen bazara, erasoia izango da. **"Ekin"**. Zeuk soilik dakizu zer gustatzen zaizun, zerk gogaitzen zaituen edo zerk sentiarazten zaituen erasotua. **"Zeurea da erabakia"**.
- Eskubidea duzu **ezetz** esateko. Inork ez du eskubiderik zuk nahi ez

duzun ezer inposatzeko.

**Zure gorputza zeurea da.**

- Bizi sexualitatea **modu askean**; nahi duzunarekin, nahi duzuna eta nahi duzunean. Gogoratu **edozein momentutan alda dezakezula iritzia**. Zerbait gustuko ez baduzu, esan.
- **Sortu harreman sanoak** pertsona guztiekin.
- Ondo maite zaituenak, ondo nahi zaitu eta **errespetuz** tratatuko zaitu.

# MUTIL!

- Jaiak, kaleak... Gaez zein egunez, pertsona orok gozatzeko dira. Eraso baten aurrean ez begiratu alde batera, **ez izan lekuko; ekin**. Zure parte-hartzea funtsezkoa da.
- Gogorarazi lagunei **ez ezetz dela**. Emakume batek badauka iritzia aldatzea, eta zer nahi duen, noiz nahi duen erabaki dezake, gizon batek bezalaxe.
- Astuna edo lerdetsua izatea ez da ligatzea. Gogoratu **behin eta berriro**

**saiatzea jazarpena dela; eta jazarpena eraso da.**

- **Drogek edo alkoholak ez ditu erasoak justu fikutzen**. Mozkortuta ere ez duzu onartu behar emakume bat eraso edo gogaitzerik.
- **Sortu harreman sanoak** pertsona guztiekin.
- Ondo maite zaituenak, ondo nahi zaitu eta **errespetuz** tratatuko zaitu.

# ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

Ez isildu eta ez ezkutatu.

**Erasoaren erantzukizuna erasotzailearena da,** ez eraso pairatzen duenarena.

**Erantzun erasotzaileei,** geldiarazi euren jarrerak.

**Eman babesa eta laguntza lagunari!, ezagunari edo ezezagunari. Ez utzi bakarrik!**

**Sexu-erasoa edota eraso fisikoa pairatu baduzu, zeure erabakia da salatzea edo ez salatzea.**

1. Bilatu konfiantzako norbait lagun zaitzan.
2. 24 ORDUZ MARTXAN dauden telefono zenbaki hauek eskura izan.

**B**



SALATU NAHI EZ BADUZU

**94 470 14 60**

Gizarte-larrialdietako Udal  
Zerbitzua. Jakin beharreko guztia  
esango dizute.

SALATU NAHI BADUZU

**092 / 112**

Udaltzaingoa.

Bilboko Udalaren aholkularitza  
eta ekintzarako protokoloa.

•

Probak funtsezkoak  
dira izan daitekeen  
epaiketara begira.  
EZ ALDATU ARROPA,  
eta EZ GARBITU  
gorputzeko atal bat bera  
ere osasun azterketa  
egin arte.

•

Osasun txostenen kopia  
eskatu, eta salatu.

## **Aukera hauek ere badauzkazu:**

- Zuzenean ospitalera joan;  
osasun azterketa egingo  
dizute, nahiz eta osasun  
txartelik izan ez. Salaketa  
bideratzeko betebeharra  
dute.
- 24 orduko guardiako  
epaitegira joan (Ibañez, 3),  
biktimari laguntzeko  
zerbitzuaz galdetu; bertan  
azalduko dizute guztia.

A dark silhouette of a woman with her arms raised in a celebratory gesture, set against a red background.

**ASTE NAGUSIA  
ERASO  
SEXISTARIK  
GABE**



**Bilbao**